



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak urrian eskainiko ditu denboraldiko lehen hiru kontzertuak

- **Ruper Ordorika** ezinbesteko erreferentzia bat da euskal rockarekin lotutako autore abestian, eta kontzertu akustiko bat eskainiko du urriaren 13an, igandean.
- **Beñat Egiarte** tenorrak eta **Josep Buforn** pianistak, hilaren 15ean, foyerrean, euskal kulturaren barna bidaiatzeko gonbidapena luzatuko dute. Bidaia horretan, hiru konpositore izango ditugu: **Maurice Ravel**, **Pablo Sorozabal** eta **Joseph Canteloube**.
- **Tontxu Ipiña** abeslari, konpositore eta produktorea **Arriaga Antzokira** dator, bere sorterri den **Bilboko** ikusleen aurrean kontzertu oso berezi bat eskaintzeko, urriaren 27an.

Bilbo, 2024ko irailaren 26a.-. 2024/2025 denboraldia aurrera doa eta urrian kontzertuak itzuliko dira Arriaga Antzokira. Zehazki, hiru dira urteko hamargarren hilabeterako programaturako hitzorduak. Bi agertoki nagusian izango dira: **Ruper Ordorika**, urriaren 13an, eta **Tontxu Ipiña**, 27an. Bi kontzertuak, gainera, bat datoz formatuari dagokionez; izan ere, abestien biluztasuna lehenesteko, bai Ruper, bai Tontxu bakarrik arituko dira oholtza gainean, gitarra eskuan dutela. Beste kontzertua urriaren 15ean izango da, foyerrean, ikusle kopuru txiki baten aurrean, eta **Beñat Egiarte** tenorra eta **Josep Buforn** pianista izango ditu protagonista.

Ordena kronologikoan aipatuz, lehenengo proposamena Ruper Ordorikarena izango da, zeinak bere abesti bildumaren zati handi baten interpretazio akustikoa egingo baitu, artifiziorik gabea, entzuleen gozamina bilatuz. Ez dira faltako, ziur asko eta besteak beste, "Erruduna", "Zaindu maite duzun hori" edo "Zaldiak negarrez" ereserki propioak. Gogoan izan behar dugu azken urteotan Ruperrek bi lan argitaratu dituela, *Bakarka* (2018) eta *Bakarka bi* (2024), eta horietan bere 24 abesti bakarka errepasatu dituela, ikuspegi intimistago eta bilduago batetik, gai bakoitzaren esentziaren alde eginez. Urriaren 13an, 19:00etan, aukera paregabea izango dugu 40 urtetik gorako ibilbidea eta hogeitauko bakoitza gehiago dituen autore baten proposamen hau zuzenean dastatzeko. Euskal kulturaren izen handi horietako bat da, zalantzarik gabe, eta, bereziki, rockarekin lotuago dagoen autore abestiaren arloan da aipatzekoa.

Bi egun geroago, asteartean, urriaren 15ean, 19:30ean, jarduera Arriaga Antzokiko foyerrera igaroko da. Han, ikusle kopuru txiki baten aurrean, Beñat Egiarte tenorrak eta Josep Buforn piano jotzaileak euskal kulturaren barna bidaiatzeko gonbidapena luzatuko digute, hiru konpositoreren eskutik. Lehen zatiak euskal musika idazle nazioartekoenaren musikan jartzen du arreta. Maurice Ravelen lan anitzetatik, *Shéhérazade* maisulana aukeratu dute lehenik: mezzosoprano ala tenorrerako idatzita, oso gutxitan entzun daiteke gizonezkoek abestuta. *Jeux d'eau* pianorako obra ederra eta bere abesti herrikoien bilduma ere joko dute, zeinetan hizkuntza gutxituetan idatzitako testuak baitaude, hala nola galegoz, okzitanieraz, napolitarrez eta yiddishez. Ondoren, bigarren zatian Pablo Sorozabalen euskarazko 7 Lieder-ak joko dituzte, baita Joseph Canteloube konpositore frantziar ospetsuaren obra bat ere. Konpositorea

ezaguna da mundu mailan *Chants d'Auvergne*-engatik, eta hain ezaguna ez den beste ziklo bat utzi zuen: *Chants des Pays Basques*. Bertan, euskal kanta herrikoietatik abiatuz, pianoarentzat eta ahotsarentzat ikusgarria den ziklo bat sortu zuen, eta euskaraz idatzi duen konpositore atzerritar bakarretako bat izan zen.

Etxera itzultzea

Urriari Arriagan programatutako azken kontzertuak Bilbora, sorterrira, itzularaziko du Tontxu. Juan Antonio Ipiña García (Tontxu) Bilbon jaio zen 1972ko abuztuan. Hamaika urterekin lehen abestia konposatu zuen, gurasoek Moncho Borrajoren saio bat ikustera eramanez ondoren. Oso gaztea zela, dozenaka abesti konposatu zituen irratiko esatari lanetan ari zela eta, horri esker, 90eko hamarkadaren erdialdean, berak bezala, abestiak egiten zituzten beste kantautore gazte batzuk ezagutu eta elkarrizketatzeko aukera izan zuen. Horiek Madrilerara joatea gomendatu zioten, Café Libertad 8 mitikoan erakustera, eta Tontxuk dena uztea erabaki zuen, Madrilerara joan eta bere ametsa betetzeko, eta bere doinuak munduari erakusteko. 1997an Musikaren sarietan autore errebelazio gisa proposatu zuten eta urte batzuetan arrakastaren ezitia dastatu zuen "Risk" edo "Somos de colores" abestiei esker. Gaur egun, 25 urte baino gehiago igaro direnean eta 13 disko argitaratuta dituela, sona handiko artista bat da, eta autore abestia ulertu ahal izateko erreferentziatzko izen bat ere bada. Bizileku duten Extremadurako Gata Mendilerroko paradisuan familiarekin eta bere hiru semeekin denboraldi bat eman ondoren, bere ibilbide profesionalarekin jarraitzen du, eta etengabe aritu da abestiak konposatzen, egile berrientzako albumak produzitu eta editatzen. Espainian eta Latinoamerikan egin ditu emanaldiak, eta orain ilusio handiz ekingo dio berriz ere etxera, Bilbora, ekarriko duen kontzertuari; non eta Arriaga Antzokian, datorren igandean, urriaren 27an, 19:00etan.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus